

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

CEINen bi zerbitzu berriren bidez ekintzaileen euren negozio-ideiak probatu eta garatu ahal izango dituzte

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzaturako "Aceleradora Empresarial" eta "Vivero Autónomos" dira zerbitzuak, eta dagoeneko 100 proiektu berri inguru dituzte esku artean.

Martes, 21 de enero de 2014

Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa sozietate publikoak (CEIN) bi zerbitzu berri eskaintzen ditu duela bi astetik, ekintzaileei eta autonomoei negozio-ideiak garatzen eta horiek enpresa sendo bihurtzen laguntzeko.

"Aceleradora Empresarial" (Enpresa-bizkortzailea) eta "Vivero Autónomos" (Autonomoen haztegia) dira zerbitzuak, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu 112.958 euro emanda (83.156 eta 29.802 hurrenez hurren).

Bi zerbitzuak gaur aurkeztu dituzte, eta aurkezpen-ekitaldian izan dira M. Isabel García Malo NEZeko zuzendari kudeatzailea, Carlos Fernández Valdivielso SODENA -- CEINeko zuzendari kudeatzailea eta berriki eratu den Nafarroako ekintzailetza babesteko sareko, Moderna Fundazioko eta Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseiluko ordezkariak.

Aceleradora Empresarial (Enpresa-bizkortzailea)

["Aceleradora Empresarial"](#) zerbitzuaren helburua ekintzaileek negozio-ideiak enpresa berrietan "lean" metodologiari jarraiki gauzatu ahal izatea da. Metodologia hori garapen bidean den proiektua etengabe hobetzean datza, bezeroaren beharrianak kontuan hartuta eta ekintzaileari arrisku gutxien eraginda, negozio-ideia etengabe probatuta eta merkatuan izan dezakeen arrakastaren inguruko zalantza murriztuta.

Eremu bat, CEINeko haztegien instalazioak, eta enpresa-proiektu berriak modu intentsiboan lantzeko eta abian jartzeko zerbitzu bereziak bateratzen ditu.



Agintariak CEINen "Vivero Autónomos" zerbitzura gein duten bisitan.

Horretarako, tailerrak, tresnak, metodologiak eta taldeko dinamikak eskaintzen ditu negozio-aukera identifikatzeko, eredu errentagarri bat bilatzeko, arriskuak murrizteko, eta arreta bezeroan eta balioa sortzean jartzeko. Gainera, bizkortzeko prozesu osoan, talde ekintzaileak CEINeko erreferentziazko teknikarien babesa izango du.

Astero 10 bat proiektu berri sartzen dira, eta bi hilabetez elkarrekin lan egiten da. Iragan urrian abian jarri zenetik, 89 proiektuk hartu dute parte "Aceleradora Empresarial" zerbitzuan.



"Aceleradora Empresarial" zerbitzuaren tailerretako bat.

Vivero Autónomos (Autonomoen haztegia)

Ekintzaileek lanerako eta ideiak eta esperientziak trukatzeko eremu bat ere badute, "[Vivero Autónomos](#)" izenekoa, CEINen instalazioetan dagoena. Enpresa-proiektuak sortu eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta egin arte finkatzeko eremua da, baita jarduerak gauzatzen hasten diren lehen urtean eremua eta zerbitzuak erabili nahi dituzten autonomo gisa eratuak proiektuentzat ere.

Zerbitzuak 18 lanpostu ditu, hiru esparrutan banatuta. Horietan, bilera eraginkorrak, kontsulta teknikoak egin eta ekintzaileen eta enpresen arteko harreman profesionalen sareen (networking delakoa) sorrera sustatzen da. Gainera, negozioen garapena bultzatzera bideraturiko zerbitzuak eskaintzeari ere garrantzia ematen zaio, jarduerak kudeatzeko berriazko tailer eta tresnez baliatuta.

Gaur egun, zerbitzua 7 enpresa-proiektutarako eta autonomo batek darabilte.

"Incube" eta "Navarra deportiva", zerbitzuan hartutako bi proiektu

Azaldutako bi zerbitzuez gain, CEINera egindako bisitan, azken asteetan zerbitzuan parte hartzen hasi diren bi proiektuen berri izan dute bertaratuek. **Incube** da lehenengoa, "Aceleradora Empresarial" zerbitzutik sortutako ekimena da eta Miguel Pueyok sustatu du. Jostailu pedagogiko berritzaile baten ekoizpenean eta merkaturatzean datza. 100 erabilera didaktiko baino gehiago ditu, ekologia oinarri hartuta egindakoak da eta gizartea eta hezkuntza helburu dituen proiektua da.

Bestalde, "Vivero Autónomos" zerbitzuaren bidez, Asier Cotelok **Navarra Deportiva** aurkeztu du. Nafarroako kirol-taldeen espezializatutako komunikazio-plataforma da, edozein maila eta modalitatearen eta kirol-ekitaldien inguruko informazioa ematen duena. Hedabide tradizionaletan eta 2.0 formatuan aurki daiteke.